

9) KOSTUEN EGITURA

Hasiera batean, guk inbertsio handia egin behar genuen, horregatik beharrezkoa izan zen guztizko kostua zenbatestea. Baina hain handiak ez izateko kostuak, hauek minimizatzen saiatu ginen. Alde batetik, kostu aldagarriak, hau da, kostuekin ez pasatzeko eta dirua aurrezteko, erosi behar genituen materialak salmenta-bolumenaren arabera erosi genituen. Bestalde, kostu finkoak, hau da, lokal baten alokairu garestia ez ordaintzeko, Ainararen osaba batek utzi zigun lokal handi batean lan egiten genuen.

Gainera, negozioarekin hasi ginenean, ez genuenez prezioekin pasatu nahi ezta produktuak ekoitzi gero ez saltzeko, oso prezio baxuak jarri genituen eta eskaintzen genituen produktuak kalitate nahiko honekoak zirenez, erosle ugari izan genituen eta horrela aurrera ateratzea lortu genuen. Baina orain normala denez, prezioa zein kalitatea aldatu ditugu, irabazi handiak ateratzeko asmoarekin.